



**ITSASONDOKO
UDALA**



Ezohiko egoerari aurre egiteko laguntzak

Koronabirusak edo COVID-19 birusak etxe askotako egunerokoan izan du eragina. Familia askoren egoera ekonomikoa aldatu egin da, eta laguntza premiak ugaritu egin dira. Halako egoeraren batean dauden herritarrei deia egiten diegu udaleko gizarte langilearekin harremanetan jartzera. Aurrez aurreko zitarik ematen ez badu ere, telefonoz jasoko ditu kontsulta eta eskaera guztiak, eta banan bana aztertuko dira egoerak.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak koronabirusak eragindako egoerei aurre egiteko eskaintzen diren laguntzen inguruko informazioa jaso du webgune batean:

- <https://covid19laguntzak.siis.net/eu/buscar/> (euskaraz).
- <https://covid19laguntzak.siis.net/es/buscar/> (gaztelaniaz).

Laguntza behar eta eskatu nahi duenak helbide horietan aurkituko du beharrezko informazioa: eskaerak egiteko baldintzak, prozedurak, agiriak aurkezteko datak, iraupena, zenbatekoak, bateragarritasunak eta beste. Bereziki, atal hauen inguruko informazioa dago:

- Laguntza berriak zein diren.
- Lehen zeuden laguntzetan izan diren aldaketak.
- Karga arintzeak.
- Moratoriak.
- Luzapen automatikoak oinarrizko premietan eta etxebizitzan alokairuan.

Edozein zalantza edo argibide eskatzeko, deitu udaletxera (943-88 11 70), 08:30etik 13:30era, edo idatzi alkatea@itsasondo.eus helbide elektronikora.

Itsasondo, 2020ko apirilaren 23a